



Etxezarra. 1912 - Baztan - 2012

LARRIÓN, José Luis; MADRID, Pedro M.^a de (argazkiak); AZANZA, José Javier; SAN MARTÍN, Roberto (testua); REKALDE, Paskual (euskarazko itzulpena)

Iruña: Analecta, 2018, 190 or.

ISBN: 978-84-9017-016-8

Etxea gure kulturaren ardatz eta oinarri nagusia izan da, eta neurri handi batean ere gaur egun halaxe izaten jarraitzen du, baina hori adieraziz ez dugu deus berririk asmatzen. Zalantzarik gabe, eraikin honen inguruan gauzatu izan dira gizakion bizimodua egituratzen duten ekimen garrantzitsuenak: lan edo beharraren arloan nahiz aisialdiaren eremuan, eta haurtzaro zein zahartzaroari dagozkien bizipenak. Hori dela kausa, bertako ikertzaile eskarmentatuenean aspalditik erreparatu izan diote egiaztapen horri. Adibide gisa, hor ditugu Leoncio Urabayenek edo Julio Caro Barojak bere garaian eginiko azterketa mamitsuak, edota Xamarrek (Juan Carlos Etxegoien) gai honen gainean berriki plazaratu duen liburua. Hala ere, beste esparru batzuetatik ere landu izan da etxearen fenomeno, haietariko bat argazkilaritza da eta oraingoan aurkezten dugun lanak gai horretan sakontzea du helburu hain zuzen. Duela ehun urte hartutako argazkietatik abiatu eta errefotografiaren teknika erabilia, ordutik hona Baztango etxeek, eta ondorioz gizarteak ere, jasandako aldaketa eta bilakaera begibistan jarri dizkigute argazki-album honen egileek.

Joan den mendearen hasieran Pedro María de Madrid Lekarozko fraide kaputxinoak eginiko argazki-erreportajea datza egitasmoaren funtsa. Irudi horiek eredu gisa harturik, José Luis Larrión argazkilaria profesionalak haren begirada zorrotza gune berdinetan finkatu du iraganeko eta gaur egungo egoerak alderatu ahal izateko. Era berean, José Javier Azanza eta Roberto San Martín historialariek sortu duten idazlana oso baliogarria suertatzen da aspaldiko eta gaurko estampa horiek testuinguru egokian kokatzeko. Egia esan behar bada, argazki zahar horiek ez ziren arrotzak aditu hauentzat, aurretik ere lekaidearen erreportajeari buruzko beste idazlan bat eginga baitzuen bikoteak. Argitalpena Nafarroako bi hizkuntzetan irakur daiteke, testua euskaratzearen ardurua Paskual Rekalde baztandar itzultzaileak hartu duelarik.

Aipatu bezala, lan hau Pedro María de Madrid zelakoak harturiko irudien balioa ezagutarazteko egin da, beraz eta logikoa denez, lehendabiziko orrialdeetan pertsonaiaren azalpen biografiko bat eskaintzen da. Benetako izen eta deiturak Pedro Satué Blanco zituen gizonak, eta bere bizitza erlijiosoan erabili zuen izengoitiak ongi adierazten duenez, Madrilen jaio zen. Nerabea zelarik aita galdu zuen, eta hamalau urterekin Lekarozko Eskola Serafikoan sartu zen. Kaputxinoen ordenaren arduradunek berehala erreparatu zieten gazteak artearekiko erakusten zuen ahalmen eta dohainei, eta horiek garatzen lagundu zioten. Denbora igaro ahala, marrazketa eta pintura irakasle bilakatzeaz gain, ikastetxeak zuen argazki-laboregiaren kargu ere egin zen. Zaletasun horretan lortu zuen abilezia agerian geratu zen modu nabarmenean 1912. urtean Navas de Tolosako gudaldia gogoratzeko antolatutako argazkilaritzako lehiaketan, berak aurkeztu zuen *Etxezarra* erreportajeak sari nagusiak eskuratu baitzituen. Baserri-etxeak ibarreko bizimoduan zuen erabateko eragina ederki erakusten zuten irudi horiek.

Dena den, erretratu horien garrantziaz hobeki ohartarazteko komenigarria da gaurko errealitatearekin alderatzea, eta horixe da, hain zuzen, José Luis Larrión argazkilari profesionalak hartu dituen argazkiek ahalbideratzen dutena. Argazkilaritzarekin izandako lehen harremanak prentsa grafikoaren bitartez izan arren, gaur egun publizitate eta argitaletxeen eremuan aritzen da lanean. Larriónek urteek ematen dituzten esperientzia eta iaotasunarekin egin ditu bere argazkiak, orientazio eta distantzia berdinak mantenduz. Beste alde batetik, errefotografiak eta argazkilaritzak orokorrean dokumentu-iturri moduan eskaintzen dituzten aukerak azaltzen dira liburuaren atal honetan. Egileek egiaztatzen dutenez, argazkia eredu paregabea izan daiteke azterlanak egiteko etnografia, soziologia historikoa edo antropologiaren eremuetan. Errefotografiari dagokionez, eta kontzeptuari buruzko gutxieneko argibide batzuk eman ondoren, teknika honek ikerketak aurrera eramateko eta didaktikoki dituen abantailak hausnartzen dira, beti ere, dokumentu hauen eduki subjektiboa ahaztu gabe.

Arestian aurreratu dugunez, duela ehun urteko eta gaur egungo argazkien azterketan sakontzeko, eta islatzen dituzten bestelakotasun eta parekotasunak hobeki alderatzeko, liburuaren azkeneko zatian Azanzak eta San Martínek erreportajeari buruzko bi iruzkin ezberdin egin dituzte, bakoitzerako ikuspuntu zehatz bat kontuan harturik. Haietariko lehenengoan, iraganeko eta oraingo irudietan antzematen diren Baztango baserri-etxearen berezko ezaugarri arkitektonikoak erakusten dira. Horretarako argazkietan agertzen diren eraikinen bolumetriari eta egituraren elementu garrantzitsueni (teilatua, aurrekaldea, balkoiak, leihoak, ateak...) erreparatu diete. Hurrengo kapituluan aurkezten duten analisiaren irizpidea beste bat izan da ordea, eta irudietan, zaharretan zein berrietan, gizakiak ingurunean utzitako aztarnak aurkitzen saiatu izan dira egileak. Ez da ahaztu behar paisaia humanizatu bati buruz ari garela, eta, ondorioz, bi alderdi hauen arteko harremanak osagarriak direla. Liburua etxe bakoitzaren gaineko fitxak dituen eranskin batekin ixten da. Erregistro horietan mota guztietako argibideak biltzen dira, hala nola, datu kronologikoak, genealogikoak eta historikoak.

Azkenaldian, tokian tokiko dokumentu grafikoak berreskuratzeko bultzaturiko ekimenak oso ohiko bihurtzen ari dira. Gehienetan, biltzen diren materialek erakusketa edo argitalpen ezberdinetan ikusten dute argia. Ezin da ukatu zabalduetako mugimendu hauek guztiz onuragarri eta positiboak direla ondare kultural hau gal ez dadin. Hala ere, sarritan, asmo onez burutu diren egitasmo hauetariko asko hankamotz geratzen dira, haietan irudien aurkezpen osatuago baten falta sumatzen baita. Izan ere, argazki batek bere baitan gordetzen duen ahalmen osoaz baliatzeko zeharo garrantzitsua da gutxieneko ezagutza batzuk izatea; esaterako, kronologia, espazio eta pertsonaia zein argazkilariaren identifikazioa ezinbestekoak dira. Zentzu horretan, argazki-album honekin egileek pauso bat aurrera eman dute, eta aipaturiko dokumentuek eskaintzen duten aukera kopuru zabalari etekin guztia atera diote. Neurri handi batean, lortutako emaitza onaren atzean arlo ezberdinetako profesionalen arteko lankidetzak dago, beraz, lan egiteko modu hau kontuan hartzea oso komenigarria izan daiteke etorkizunean garatuko diren mota hauetako proposamen berrietarako.

Ricardo Gurbindo Gil